

GUGGENHEIM BILBAO

2021

P R O G R A M M A Z I O N E



# GUGGENHEIM BILBAO

## Guggenheim Bilbao Museoaren Zuzendariak eta Arte-arduradunek 2021eko programazio artistikoa osatzen duten erakusketak aurkeztu dituzte

Guggenheim Bilbao Museoaren Zuzendari Nagusiak, Juan Ignacio Vidartek, eta Lucia Agirre, Manuel Cirauqui, Lekha Hileman Waitoller eta Petra Joos Museoaren Arte-arduradunek 2021erako programaturako zortzi erakusketen gakoak azaldu dituzte. Aurtengo programazio artistikoaren kalitatea eta aniztasuna aurkeztu dute, mota desberdinetako ikusleentzat erakargarriak izango diren erakusketen bidez.

Anbizio handiko programazio honetan, emakume artisten protagonismoa nabarmena izango da urte osoan zehar Museoko aretoetan.

Bisitariak, besteak beste, Bilboko *fin de siècle* garaiko margolarien lanak, aurreko mendeko hogeiko hamarkadan Europak bizitako *urte eroak* eta bideo-arte garaikidearen hainbat proposamen izango dituzte ikusgai. Alice Neel-en pintura eta 1860–1980 urteetan emakume artistek abstrakzioari egindako ekarpenari eskainitako erakusketak ere azpimarratzekoak izango dira.

Hona hemen erakusketak, ordena kronologikoan.

### ***Bilbao eta pintura***

- Datak: 2021(e)ko urtarrilak 29 - 2021(e)ko abuztuak 29
- Komisarioa: Kosme de Barañano
- Babeslea: Iberdrola

XIX. mende amaieran, Bilbo Espainiako estatuko hiri oparoenetako bat bihurtu zen ontzi-industriari eta industria siderurgikoari esker, baina baita bere merkataritza-, banku- eta kultura-jarduerari esker ere. Beren lanetan Frantziako inpresionismoaren eta, ondoren, abangoardien modernitate-ideiak txertatu zituzten euskal sortzaileen ideiak dakarzkigu erakusketa honek XIX. mendearen amaieran eta hogeigarrenaren hasieran Bilbon lan egin zuten zenbait artistaren koadroen bidez. Lan horiek margolan panoramiko handiak dira, eta Bilboren historiako une oso desberdinak irudikatzen dituzte: merkataritza-ontziak itsasadarrean eta aisialdiko terrazak; burgesen eta baserriarren bizimodua; arraunlariak eta estropadalariak; bataio-festak eta baserrietako uzta-bilketa; heriotza itsasoan eta gerran; kiroletako heroiak edo portuko eguneroko zereginak.

### **Film & Video: Alex Reynolds. *Bada Lege Bat, Esku Bat, Abesti Bat***

- Datak: 2021(e)ko otsailak 19 - 2021(e)ko ekainak 13
- Komisarioa: Manuel Cirauqui, curator, Guggenheim Bilbao Museoa

Alex Reynolds artista eta zuzendariak (Bilbo, 1978) obsesio bat du: eraikuntza zinematografikoa osatzen duten egitura narratiboak, aginduen sekuentziak eta kadentziak aztertzea eta probatzea. Fikzioaren erregistro helduezinetik abiatuta, haren lanak ikuslearen eta lekukoaren arteko tentsioak, ikuspegiaren mugak eta gailuaz

# GUGGENHEIM BILBAO

haratago doazen emozioen trukea neurtzen ditu. Narrazioaren alderdian arreta jarriz, eragin- eta botere-harremanak aztertzen ditu, komunikazio horietan nagusi diren jolasak eta akatsak, eta salbuespena erakusten du irudien automatismoan. Horrela agertzen dira haren ikerketako gai errepikakorrak: erretratua (aurpegiarekin edo aurpegirik gabe), erritmoa (batzuetan musikarekin) eta arkitektura (ikusgaia eta ikusezina). Reynolds azkenaldiko obren artean, nabarmentzekoak dira Alma Söderberg koreografoarekin batera egindako lanak eta, bereziki, *Eskua kantari* (*La mano que canta*) izeneko ekoizpena, zeina Guggenheim Bilbao Museoa aurkeztuko baita lehen aldiz.

## ***Urte Eroak, 1920ko Hamarkada***

- Datak: 2021(e)ko maiatzak 7 - 2021(e)ko irailak 19
- Komisarioak: Cathérine Hug, curator, Kunsthaus Zürich eta Petra Joos, curator, Guggenheim Bilbao Museoa
- Guggenheim Bilbao Museoa eta Kunsthaus Zürich museoak antolatutako erakusketa.

XX. mendean, gizakiak berrikuntzarekiko zuen grina inoiz ez zen izan 1920ko hamarkadan bezain agerikoa. Hamarkada hartan, gaur egungoak baino aurrerakoiagoak ziren planteamenduak egin ziren alderdi askotan: asmo handiko hirigintza-planak sortu ziren; hiriak bizkor handitu ziren; eredu sozial tradizionalak eta instituzioak zalantzan jarri ziren (adibidez, ezkontza); ordura arte desberdinduta edo zapalduta bizi ziren gutxiengoak edo sektoreak (esaterako, emakumeak edo homosexualak) lekua hartzen hasi ziren kulturaren eta politikaren esparruan; lanaldia hobeto egokitu zen langileen beharretara, eta, aldi berean, aisiaren industria handituz joan zen; eta mugikortasunak, gero eta demokratikoagoa zenez, eguneroko bizitzako arlo guztiak ukitzen zituen.

Erakusketak Berlin eta Paris hartzen ditu 1920ko hamarkadako errealitate espezifiko horiek bizi izan zituzten metropolien adibide gisa, baina abangoardiaren beste gune batzuei ere begiratzen die; esaterako, Viena eta Zürich. Mendebaldeko hemisferioko hiri handi guztietan aldi berean sortu zen fenomeno izan ziren hogeiko hamarkadako urte ero haiek (“les années folles” frantsesez eta “Die wilden Zwanziger” alemanez). Esanguratsua izan liteke gaur egun ia edonork erraz identifika dezakeela 1920ko hamarkadaren berezko ezaugarrietako bat gutxienez; esaterako, *pixie* ile-ebakera, erotismoa nabarmentzen duen arropa estua, modaren ikuskera bitxia, jazz-erritmoari jarraitzen zioten dantza basatiak edo zinemaren ikuskera berezia, utopia berriak proiektatzeko berebiziko pantaila gisa eta inspirazio-iturri eta ihesbide estimulagarri gisa.

Europa osoan, baina batez ere Frantzia eta Alemanian (Lehen Mundu Gerran kalte handiak jasan zituzten herrialdeak biak), herritarrek atzean utzi nahi zituzten urte traumatikoak, eta garai hobeak gogora ekarri; aldaketak eragindako egoera sozial berri hartan, bizitzaz are gehiago gozatu nahi zutela erakusten zuten. Europako kulturari egin dion ekarpen berritzaileagatik ezaguna den Calixto Bieito operetako eszena-zuzendariak diseinatuko du erakusketa. 2013an, Basileako Antzokiko zuzendari artistiko izendatu zuten Bieito eta, 2016an, Bilboko Arriaga Antzokikoa.

# GUGGENHEIM BILBAO

## *Asmamenaren Ildoa*

- Datak: 2021(e)ko ekainak 11 - 2022(e)ko otsailak 6
- Komisarioa: Lekha Hileman Waitoller, curator, Guggenheim Bilbao Museoa

*Asmamenaren ildoa* erakusketak Guggenheim Bilbao Museoren Bilduma Propioko obretako batzuk aztertzen ditu, baita epe luzerako maileguetako batzuk ere, eta haien guztien bereizgarri komunak umorea, asmamena eta esperimentazioa dira. Jakin-mina darien piezak dira, ezohiko materialak eta teknikak baliatuta eginak, eta haietako askok arau sozialak eta estetikoak desafiatzen dituzte, modu ludikoan egin ere, beren asmamena agerian utziz.

Erakusketaren lehenengo aretoak teknologia eta prozesu ez oso ortodoxoak erabiliz sortutako obrak biltzen ditu; esaterako, Yoko Onoren *Hichiko Hoppo*, jendaurreko performance batean margotutako bederlatzi mihisez osatutako lan bat. Bigarren aretoa zenbait pieza figuratibok osatzen dute. Pieza horietan, artistek gaiak irudikatzeko dauzkaten aukera amaigabeak agertzen dira. Antonio Sauraren, Henri Michaux-en eta Georg Baselitz-en obrek erretratuak estilo espresionistan egiteko oso ohikoak ez diren formak aurkezten dituzte.

Bestalde, giza irudiaren ikuspegi errealista erabilita, Juan Muñozen *Itzala eta ahoa* (*Shadow and Mouth*) obrak antzerki-formako eszena bitxi bat erakusten digu; bertan, ikuslearen imajinarioaren pean uzten da istorioaren edukia. Ibilbideko azken aretoak obra abstraktuen sorta bat biltzen du, eta horietan, egileek materialekin edo prozesuekin esperimentatzen dute. Prudencio Irazabalek bereizgarri duen pigmentu-aplikazioa, adibidez, polimero likido eta pigmentu nahasketa zehatz batean oinarritzen da, eta, hari esker, artistak argitasun berezia ematen dio mihiseari. Bestalde, Rodney Graham-en *Fotograma* izeneko bi zatiko obrak ertz baten arkitektura erabiltzen du ikuslea obran sartzeko, bata bestearen aurrean jarritako mihise beltz zeharo islatzaile batzuen ispilu-efektuaren bidez. Hurbildutakoan, behatzailea fotogramaren protagonista bihurtzen da automatikoki. Nabarmenkeriaren, jakin-minaren eta umorearen bidez, *Asmamenaren ildoa* erakusketak teknologiarekin, irudikapenarekin eta prozesuekin egindako esperimentuak dakarzkigu.

## **Film & Video: Cecilia Bengolea. *Tximista Dantza***

- Datak: 2021(e)ko ekainak 24 - 2021(e)ko irailak 26
- Komisarioa: Manuel Cirauqui, curator, Guggenheim Bilbao Museoa

Cecilia Bengolea (Buenos Aires, 1979) diziplina anitzetan diharduen artista bat da, eta bideoa, koreografia eta eskultura uztartzen ditu. Haren ikerketa-lanean, Bengoleak elementu garaikideak eta arkaikoak konbinatzen dituzten eta figurazioaren kontzeptu denboragabea azaleratzen duten herri-dantza desberdinak aztertzen ditu. Haren beste proiektu askotan bezala, azkenaldiko *Tximista dantza* (*Lightning Dance*, 2018) ekoizpenean ere lan handia egin zuten elkarrekin artistak eta obrako *performer*-ek. Kasu honetan, pieza Jamaikako uharteko *dancehall* kulturaren inguruan Bengoleak egin zituen lanen multzoan sartzen da. Pieza zirrargarri honetan, elektrizitate atmosferikoak portaeran eta imajinarioan duen eragina aztertzen da. Bideoaren eritmoak etengabe lotzen ditu musika- eta giro-soinuak, trumoiak eta perkusioak, *sound system* bakarra osatuko balute bezala sinkronizatuta. Dantzari-talde guztientzat, dantza ez da soilik adierazpide bat; sendatu ere egiten du.

# GUGGENHEIM BILBAO

Pieza ikusgarri honekin batera, animazio digitaleko obrak daude; ilusio ia holografikoak dira, eta haietan artistak etengabe aldatuz doan gorputz baten eraldaketa txundigarriak erakusten ditu.

## *Alice Neel: People Come First*

- Datak: 2021(e)ko irailak 17 - 2022(e)ko urtarrilak 23
- Komisarioak: Kelly Baum, "Cynthia Hazen Polsky and Leon Polsky" Arte Garaikideko Arduraduna, eta Randall Griffey, Arte Moderno eta Garaikideko Arduraduna, The Met, Guggenheim Bilbao Museoko Lucía Agirre Arte-arduradunarekin batera
- The Metropolitan Museum of Art-ek antolatutako erakusketa, Guggenheim Bilbao Museoarekin eta The San Frantzisko Fine Arts Museum-ekin elkarlanean

*Alice Neel: People Come First* lehen atzera begirakoa da Espainian, Alice Neel (1900-1984) artista estatubatuarari eskainia. Anbizio handiko azterlan honek mendeko pintore erradikalenen artean kokatuko du egile hau. Justizia sozialaren defendatzaile, printzipio humanistekin hartua zuen konpromiso irmoak inspiratu zituen bere bizitza eta obra, eta horren erakusgarri ditugu aurkezpen honetan bildutako ehun pintura, marrazki eta akuarelak.

Erakusketak faxismoaren eta arrazakeriaren aurka manifestatzen ari diren aktibisten irudiak erakusten ditu hauekin batera: Depresio Handiak pobretutako biktimen pinturak, eta erretratuak New Yorkeko Spanish Harlemeko –Neelen auzoa– bizilagunenak, erakunde politiko desberdinetako liderrenak, queer antzezle eta artistenak, eta New Yorkeko diaspora globaleko kideenak. Gainera, erakusketan ikusgai daude 1930eko hamarkadan Neelek egindako akuarela eta pastel erotikoak, amen erretratuak eta irudi biluzien pinturak (batzuk sabel nabarmenekin haurdun), eta lan horietan antzematen den xumetasunak eta irreberentziak ez dute aurrekaririk mendebaldeko artearen historian.

Urte luzez New Yorken bizita, bere gairik iraunkorrena izan zen hiri hori. Izan ere, bere obra guztiek islatzen dituzte bertako kaleetako drama, bertako eraikinen eguneroko edertasuna eta, horren guztiaren gainetik, herritarren aniztasuna, erresilientzia eta adorea. "Niretzat, jendea da lehena", esan zuen Neelek 1950ean. "Gizakiaren duintasuna eta betiereko garrantzia aldarrikatzen saiatu naiz".

## **Film & Video: Sharon Lockhart. *Noa Eshkol-en mugimendu-rotazioa***

- Datak: 2021(e)ko urriak 7 - 2022(e)ko otsailak 27
- Komisarioa: Manuel Cirauqui, curator, Guggenheim Bilbao Museoa

Sharon Lockharten (1964, Norwood, AEB) bideoinstalazioek eta argazkilaritza-lanek arreta berezia eskaintzen diete gizakiaren ekintzari eta hura irudikatzeko moduari, bakarrik nahiz gizartean dagoenean. Lanak, koreografiak eta gainerako alderdi guztiek mugimendu soil baten konplexutasuna eta sakontasun poetikoa jartzen dituzte agerian.

# GUGGENHEIM BILBAO

Lockhartek ildo honetan egin dituen ikerketa ugarien artean, Noa Eshkol (1895–1969) koreografo, teorialari eta ikertzaile israeldarraren lanari buruzko hausnarketak leku berezia du artistaren azken hamarkadako ekoizpenean. Eshkol aitzindaria izan zen giza keinuak gorputzaren mugimenduaren ia modalitate guztiak erregistratzeko gai den idazketa-sistema batera transkribatzen. *Four Exercises in Eshkol-Wachman Movement Notation* (2011) instalazioan, Eshkolen eskarmentu handieneko ikasle batek sistema hori aplikatzen du hainbat modutara, konposizio-eredu zorrotzetan oinarrituta, eta keinuen bidez mezuak sortzeko aukera eskaintzen du, espazioa testu baten euskarria balitz bezala. Ikaslearen kontzentrazioak, mugimendu bakoitzaz jabetzeak, lasaitasuna eta indarra ematen dizkio performanceari. Filmaren isiltasunak areagotu egiten du keinuen garbitasuna. Haien partiturek hiru dimentsioko forma geometrikoak hartzen dituzte Lockharten argazkietan. Instalazio hau sortzeko, Thyssen Bornemisza Art 21 (TBA21) bildumarekin egin da lan eta The Wellbeing Projectekin.

## ***Emakumeak Abstrakziogile***

- Datak: 2021(e)ko urriak 22 - 2022(e)ko otsailak 27
- Komisarioa: Christine Macel eta Karolina Lewandowska, curators, Centre Pompidou, Paris eta Lekha Hileman Waitoller, curator, Guggenheim Bilbao Museoa
- Babeslea: BBVA Fundazioa
- Erakusketa Centre Pompidou, Paris-ek antolatu du, Guggenheim Bilbao Museoarekin elkarlanean.

*Emakumeak abstrakziogile* erakusketaren helburua da inork kontatu ez duen artearen historia kontatzea, batez ere XX. eta XXI. mendeetakoarena, eta emakume artistek abstrakzioari egindako ekarpenean jartzen du arreta. 200 bat artista biltzen ditu erakusketak, hainbat diziplinakoak (esaterako, dantza, arte aplikatuak, argazkilaritza, zinema eta performancea), eta munduko eremu askotakoak (Latinoamerika, Ekialde Ertaina, Asia, Europa eta AEB); haien bidez, ahots ugari osatutako historia hedatua eta konplexua aurkeztu nahi du.

Abstrakzioari buruzko erakusketa askok gutxietsi egiten dute emakumeek mugimendu horren garapenean duten funtsezko zeregina. Emakume artistei bidegabeki egin zaie ez ikusiarena batzuetan, baina erakusketa honek, arreta haiek guztiek egindako bideetan jarrita, beste era batera kontatu nahi du historia. *Emakumeak abstrakziogile* erakusketak mugimendu horretako une garrantzitsuak azaltzen ditu, eta gogora ekartzen ditu artisten euren ikerketak (bai banaka bai taldean eginak) eta erakusketa garrantzitsuenak.

## **Materialak:**

Erakusketen irudiak, Guggenheim Bilbao Museoaren prentsa eremuan daude eskuragarri, erakusketa programazioaren prentsa oharrarekin batera

2021eko programazioaren laburpen-BIDEOA: <https://vimeo.com/500519328/24b5c89ffa>

# GUGGENHEIM BILBAO

## Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa  
Komunikazio eta Marketin Saila  
Tel.: +34 944 359 008  
[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)  
[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)

# GUGGENHEIM BILBAO

## PRENTSARAKO ONLINE IRUDIEN ZERBITZUA

Museoaren webguneko prentsa-atalean ([prensa.guggenheim-bilbao.es](http://prensa.guggenheim-bilbao.es)) erregistratuz gero, erakusketen eta eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatu ahal izango dituzu. Oraindik konturik ez baduzu, erregistratu eta deskargatu behar duzun materiala. Erabiltzailea bazara, idatzi erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta zuzenean eramango zaitugu irudietara.

- Irudiak erakusketekin erlazionatutako publizitatea egiteko soilik erabil daitezke..
- Osorik agertu behar dira, moztu gabe, ezer gainjarri gabe eta manipulatu gabe, azaletan izan ezik. Kasu horretan, artistaren estudioak maketa onartu beharko du. Erreproduktzioekin batera, artistaren izena, obraren izena eta data, jabetzaren erreferentzia, copyrighta eta argazkiaren kreditua adierazi behar dira.
- Online argitaratutako irudiak segurtasun-neurri elektronikoen bidez babestu behar dira.
- Irudiak gehienez 1.000 pixeleko bereizmena izango dute alderik luzeenean. Online argitalpeneko fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin da izan deskargagarria.
- Irudiak ezin zaizkie transferitu hirugarrenei edo datu-baseei.

Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoko prentsa-sailarekin, telefonoz (+34 944 359 008) edo posta elektronikoz bidez ([media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)).

### ***Bilbo eta pintura***

#### **Adolfo Guiard**

*Terrazan (En la terraza)*, 1886

Olio-pintura mihise gainean

110 × 470 cm

Bilduma: Sociedad Bilbaina



#### **Aurelio Arteta**

*Arratiako Eva (Eva arratiana)*, 1913

Olio-pintura mihise gainean

152 x 286 cm

Bilduma: Sociedad Bilbaina





# GUGGENHEIM BILBAO

## FILM & VIDEO

### Alex Reynolds. *Bada lege bat, esku bat, abesti bat*

Alex Reynolds eta Alma Söderberg

*Eskua kantari (La mano que canta)*, 2021

Bideo-proiektzioa, koloretan, soinuduna (Ekoizpen-irudia)

Eskaintza: artista eta Galería Marta Cervera

22 minutu

© Alex Reynolds



### Cecilia Bengolea. *Lightning Dance*

Cecilia Bengolea

*Tximista-dantza (Lightning Dance)*, 2018

Bideo-proiektzioa, zuri-beltzean, soinuduna

Eskaintza: artista eta àngels Barcelona

© Cecilia Bengolea



### Sharon Lockhart. *Noa Eshkol-en Mugimendu Notazioko lau ariketa*

Sharon Lockhart

*Mugimendu Notazioko lau ariketa Eshkol-Wachman (Four Exercises in Eshkol-Wachman Movement Notation)*, 2011

Kanal bateko bideo-instalazioa (koloretan, soinurik gabea) eta proiektzio-horma

© Sharon Lockhart

Thyssen-Bornemisza Art Contemporary Collection

Fotograma: artistaren eskaintza | Noah Eshkol |

Galerie neugerriemschneider, Berlin



Sharon Lockhart

*Orbiten maketak erreferentzia-sisteman, Eshkol-Wachman Mugimendu Notazioko Sistema: esfera hiru bere errotazioaren bost puntutan (Models of Orbits in the System of Reference, Eshkol-Wachman Movement Notation System: Sphere Three at Five Points in Its Rotation)*, 2011

Bost kopia koloretan, markoztatuak

© Sharon Lockhart



# GUGGENHEIM BILBAO

## Urte eroak, 1920ko hamarkada

### **Christian Schad**

*Maika*, 1929

Olio-pintura zur gainean

65 x 63 cm

Bilduma pribatua

© Christian Schad Stiftung, Aschaffenburg, VEGAP, Bilbao, 2020



### **Grethe Jürgens**

*Ileapaindegiko manikiak (Frisierpuppen)*, 1927

Olio-pintura mihise gainean

96,5 x 59,5 cm

Bilduma pribatua

© Sprengel Museum Hannover, Vermächtnis Grethe Jürgens



## Asmamenaren ildoak

### **Yoko Ono**

*Hichiko Happo*, 2014

Sumi tinta bederatzi mihiseren gainean

200 x 100 cm bakoitza, 200 x 900 cm guztira

Guggenheim Bilbao Museoa

Artistaren dohaintza

© Yoko Ono



### **Sigmar Polke**

*Kathreiner, goizean, zakila tente (Kathreiners Morgenlatte)*, 1969–79

Akrilikoa, zura, baliabide anitzak, collagea markoarekin mihise eta ehun gainean

230 x 305 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

© Sigmar Polke



### **Henri Michaux**

*Titulurik gabea*, 1981

Akuarela paper gainean

310 x 250 mm

Guggenheim Bilbao Museoa

Henri Michaux artxiboen dohaintza, Paris



# GUGGENHEIM BILBAO

## Alice Neel: People Come First

### Alice Neel

*Elenka*, 1936

Olio-pintura mihise gainean

61 x 50.8 cm

The Metropolitan Museum of Art, New York, Dohaintza, Richard

Neel eta Hartley S. Neel, 1987

© The Estate of Alice Neel. Courtesy



### Alice Neel

*Autorretratua (Self-Portrait)*, 1980

Olio-pintura mihise gainean

135.3 x 101 x 2.5 cm

National Portrait Gallery, Smithsonian Institution, Washington DC

© The Estate of Alice Neel.



## Emakumeak abstrakziogile

### Sonia Delaunay (Sarah Sophie Stern Terk)

*Prisma elektrikoak (Prismes électriques)*, 1914

Olio-pintura mihise gainean

250 x 250 cm

Estatuak eskuratua, 1958

Egiletza 1958an onartua

Collection Centre Pompidou, Paris Musée national d'art moderne - Centre de création industrielle

Obra: © Pracusa S.A.

Argazkia: © Centre Pompidou, MNAM-CCI/Philippe Migeat/Dist. RMN-GP



### Natalia Gontcharova

*Konposizioa (Composition)*, 1913-1914

Olio-pintura mihise gainean


104,2 x 97 x 2,5 cm

Dohaintza : Estatu Sobietarra, 1988

Collection Centre Pompidou, Paris, Musée national d'art moderne - Centre de création industrielle

Obra: © Adagp, Paris

Argazkia: © Centre Pompidou, MNAM-CCI/Philippe Migeat/Dist. RMN-GP



# GUGGENHEIM BILBAO

**Sophie Taeuber-Arp (Sophie-Henriette Taeuber)**

*Dada konposizioa (Burua plater gainean) [Composition dada (Tête au plat)], 1920*

Olio-pintura mihise gainean, kartoi gainean itsatsita, beira gainean markoztatuta

35 x 43 cm

Eskuratua, 2003

Centre Pompidou, Paris

Musée national d'art moderne - Centre de création industrielle

Argazkia: © Centre Pompidou, MNAM-CCI/Georges Meguerditchian/Dist. RMN-GP

